



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Produktua sortzeko hainbat material beharko ditugu eta hainbat hornitzaileekin kontaktuan jarriko gara gure lehengaiak eta makinak erosteko.

Alde batetik, hozkailua, txorrota, harraska, gain-mahaia eta labea Fibracim enpresari erosiko dizkiogu; mahaia, aulkiak eta pinturak, berriz, Leroy Merlin multinazionalari erosiko dizkiogu, eta labainak Ikean erosiko ditugu; ordenagailuak, Mediamarkt-en erosiko ditugu, eta azkenik banbuzko sardexkak web orrialdean [honetan](#) erosiko ditugu.

Sare sozialentzat eta web orrialdearentzat [@blancanutri-rekin](#), bere instagramera errezeta osasungarriak igotzen dituen Bilboko nutrizionistarekin, kolaborazio bat egingo dugu, gure entsaladen informazio nutritiboa zehatza eskuragarri egoteko eta bezeroak informatu ahal izateko. Bere web orria honako hau da: <https://clincassegura.com/nutricion/>

Uste dugu gure enpresaren bitartez irudikatu nahi ditugun balioak berak ere dituela eta horregatik berarekin lan egitea gustatuko litzaiguke. Gainera, nahiko ospetsua denez publizitate handia emango lioke entsaladari.

Kolaboraizoa gure enpresako community managerrak eta Blancak bideoak eginez gauzatuko da, eta grabaketa horiek gure instagramera eta web orrira igoko ditugu.



Izan ere, entsaladak guk prestatuko ditugu bi langileren laguntzarekin. Bestalde, makinaria eta lehengaiak garraiatzeko Yanci SL. enpresa kontratatuko dugu, Errenteriako garraio-enpresa bat. Azkenik, enpresa bat kontratatuko dugu logoa kaxetan inprimatzeko.